

Gaztela Mantxako Unibertsitateko Arte Garaikideko Teoriako eta Estetikako irakasle titularra den Jose Luis Break, 2003ko azaroaren 20an, Artelekun, Artea eta Jakintza (a-J) mintegiaren barruan emandako *El tercer umbral* konferentziaren laburpena.

Jose Luis Brearen hitzetan, konferentzia horren helburua XX. mendeko artearen garapena erabaki duten artikulazioen segida sintetiko bat egitea zen. Horretarako, praktika kulturalak ekoizpenaren esferak jasandako eraldakuntzekiko dituzten harremanetan oinarritu zen. Interesgarriena, Jose Luis Brea-ren iritziz, ez da historia egitea, diagnosi bat egitea baizik. Eremu artistikoan gertatzen denaren ikuspuntu dimentsionatu bat eskaintzea. "Praktika bisualek eratzen duten egungo konstelazioa premiaz kartografiatzea", Jose Luis Brea-ren hitzetan.

Jose Luis Break hiru aldi ezartzen ditu berak proposatzen duen kartografia berri honetan. Lehenengoa **kapitalismo industrialaren aroa** da. Une horretan, bere iritziz, kapitalismoaren ekoizteko moduen eta lehenengo abangoardietako artistek lan egiteko moduen arteko korrelazio bat gertatzen da. Fabrika bizitzeko modu bilakatzen da eta horrek artistak gizartearen barruan kokaleku berri bat bilatzera bultzatzen du. Bizitza burgeseko erretratu-egileetatik urrundu eta historiako pertsonaia berri gisa azaltzen da, "Bere bizitzaren erritmoa historiaren erritmora egokitzen du" adierazi zuen Jose Luis Break. Ekoizle sinbolikoa munduarekiko aurrez aurre jarritako pertsonaia gisa azaltzen da. Lan produktiboaren eta ekoizle sinbolikoak egiten duen lanaren arteko bereizketa erabatekoa da. Artista klaseko traidore gisa jarduten da, berea ez den klase batetako kontaketa eta balioak ekoiztera eta defendatzera behartuta dago. "Abangoardiako artista, antidiskurtsoaren bidez, bizi duen egoerarekin lotzen da. Sortzen duen antidiskurtsoak ezarritako munduaren ideologiaren oinarri diren baieztapenak ahultzen ditu", dio Jose Luis Break. Mundutik bereiziaz gain, bere kokalekutik langile ekoizleekiko lagun sinesgarri gisa azaltzen da beren eskubideen eta berdintasunaren aldeko borrokan. Korrelazio ezegonkor hori kapitalismoaren garapenak eta ekoizle sinbolikoak edo artistak hartutako estetika antagonistak sostengatzen dute.

Bigarren aldia **kontsumo-kapitalismoaren garapenarena eta iraultza kulturalena** da. Une horretan, akademia artistikoak atzera egiten du, eta artista antagonikoaren irudia erori egiten da. Artista hauslea negatibotasunik gabe geratzen da. Burgesia etsaiarekin identifikatzen funtzio babesle bat okupatzera pasatzen da. Kontradiskurtsoa eredutzat hartzen da, eta hegemonia ezkutuko lege bilakatzen da. Beraz, antagonistaren lana berriro zehaztu behar da. "Autonegazioaren dialektika soluzioaren bide gisa azaltzen da", esan zuen Jose Luis Brea-k. Kritika jadanik ez da zuzentzen obraren barnera, obraren periferiara baizik. Obra ekoizten eta inguratzen duen gailu-multzoa kritikaren xede bilakatzen da. Antagonismoa da une horretan dinamika kritikoa, eta zenbait praktika hegemoniko nola bilakatzen diren nabarmen uztea. Horri dagokionez, Jose Luis Break dinamika antagoniko hori "joko zimardikatu" gisa definitu zuen, ukatze- eta zurgatze-prozesu bat zelako. Artista askoren lana arte instituzioak neutralizatu zuen; are eta erradikalagoa artistak sistemarekiko egiten zuen ezeztapena, orduan eta garrantzitsuagoa zen bere irudia.

Une horretan, alienazio modu berezienak lan-eremutik aisialdiaren eremura mugitzen dira. Ondorioz, borrokarako lekuak ere espazio horretara lekualdatzen dira. Artista zuzenean hiru borroka-eremu berritan inplikatu da. Lehenengoa, Jose Luis Brearen iritziz, kontsumoaren gainproduktzioa baztertzeari dagokio. Errebolta politikoaren azken xedea izango da eguneroko bizitza erreformatzea, esperientzia intentsifikatzea. Kapitalismoak sustatzen duen izpiritu-miseriatik ihes egitea. Borrokarako bigarren frontea desioen, bizitzaren eta afektuen

antolamenduaren aurka dagoena da. "Munduaren merkantilizazio-sistema indar ekoizleak nahiz jarduera-kodeak bereganatzean datza. Kapitala desioaz jabetzen da. Ez dago lan iraultzailerik eremu horretan borrokatu gabe", azaldu zuen Jose Luis Break. Hirugarren eta azken borroka-eremua irudimenezkoa eta erreala denari dagokionez mass-mediek egiten duten irudikapenarena da. Eremu horretan zirkulatzen dute jokabide-ereduak zehazten dituzten moduak. Artistaren funtzio berriak birkodetzea eragiten duten borroka berri horiek hirugarren aldirako seinale nabarmenak dira, Jose Luis Brearen iritziz.

Hirugarren atalasea kapitalismo kulturalarena da. Ekonomiaren eremuaren eta kultur nahiz irudikapen praktiken arteko talka gertatu da. Sinbolo eta kontakizunen ekoizpena, tradizionalki, produkzio-saretik eta aberastasun-produkzioetik at gertatu da. Baina hirugarren aldi honetan, bereizketa hori desagertu egin da. Talka hori mugimendu elkarkari baten ondorio da: industria kulturala ezartzen da, eta kultura eta ekonomia elkarrekiko gerturatu egiten dira. Ekonomiaren kulturizazioa ikustekoaren merkantilizazioaren ondorioz gertatzen da. Gainera, prozesu hori krisi larri batekin batera gertatzen da, nortasuna ekoizteko makina zahar eta handien krisiarekin: erlijioa, etnia, nazionalitatea.... gizarte berrien muturreko mugikortasunak lagunduta.

"Aberastasuna sortzen duen laugarren sektore baten jaiotza bizitzen ari gara. Sektore hori, gainera, gizadiak ezagutu duen operadore sinboliko boteretsuena da: subjektibotasunaren industria" esan zuen Jose Luis Break. Langile ez-materialak, ekoizle sinbolikoak, industria berri horien makinarian integratu dira. Artistaren funtzio antropologikoa berrezarri egin da. Informazioa hartzeak berebiziko garrantzia du ezagutzaren gizartean. "Espazio honetan determinaziorako leku bat eta baldintza batzuk aurkitzean datza. Leku berri hori ez da bilatu behar euskarri berrien erabileran, edo sintaxi desberdinen garapenean, edo merkatuko sektoreen egokitzapenean, baizik eta subjektibazio-modu berrien sorkuntzan", Jose Luis Brearen iritziz.

CC

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.